

DATA

2019/07/15

ORDUA

09:15

PARTEHARTZAILEAK

Amets Jauregizar Baraiazarra (alkatea)

Irati Abio Muruaga (alkateordea)

Josu Garai (zinegotzia)

Javi Miguel (zinegotzia)

LANDUTAKO GAIAK

- 1. Tokiko Gobernu Batzordearen eraketa onartu: Lehenengo bilera honetan idazkariak eraketaren akta idatzi du.**
- 2. Aurrekontuaren aldarazpena egiteko beharrezana erabaki:**
 - Kiroldegian dauden eguzki plakak martxan jartzeko proposamena egin da. Plaka hauen helburua energia gastua aurreztekoa izango da.
 - Nahiz eta guk kontratazioa martxan ipini aurretik hau egiteko kopuru guztia disponible izan behar dugun berau finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeko proposamena ere onartzen da.
 - Hurrengo bileran hartu da aurrekontuaren gerakinaren pentsu aurrekontuaren aldarazpena egitea.
- 3. Bakeako kolunpioak:**
 - Lehenengo fase honetan kontratazioa martxan ipintzeko erabakia hartu da. Aurrekontu parte hartzaileen testuinguruan kolunpioak hartzeko erabakia hartu zen. Horregaitik sare bat eta zorua ipintzeko kontratazioa hasteko erabakia hartu da.
 - Bigarren fasean jarri beharrekoan inguruan skate parkekoekin hausnarketarako espazioa zabaltzeko konpromisoa hartu da. Eremu hau diseinatzen ingurua kontutan hartzeko asmoz.
- 4. Bakean komun publikoa ipintzeko kontratazioa martxan jartzeko erabakia hartu da.**
- 5. Eskolako aterpeko obren amaieraren eta espedientearen berri eman da.**

6. Aurrekontua:

- 2020ko aurrekontuak prestatzeko RPTa aztertzea ezinbestekoa dela erabakitzen da. Udal teknikariek egoera azaldu digute eta lanpostuen balorazioa ahalik eta arinen egitea erabaki da.
- Aurrekontua parte hartzaileak martxan jartzeko kronograma azertu behar da. Beraz, astebeteko epean erabakia hartzeko konpromisoa hartu da.

7. Zinegotzien dietak:

- Asistentziari lotuak dira beraz, batzorde informatiboetara joateagatik zinegotzi bakoitzak hartuko duen ordainsaria zehaztu behar da. Hurrengo egunetan zehaztuko da osoko bilkurara eramateko proposamen berria.

8. Kiroldetako eta musika eskolako prezioak, prezio publikoen ordenantzan txertatzeko erabakia hartu da.

9. Bakoitzak dakartzan kezka eta proposamenak aztertzea:

- BakioBaiko zinegotziak aurrekontuen zirriborroa prestatzeko udaleko sail desberdinekin elkarrizketetan hasi direla komentatzen dute.
- Alkateak, kontratazio elektronikoan sakontzen eta berau inplantatzen hasteko proposamen bat egingo du. Hurrengo bileran proposamen zehatza luzatzea espero du.